

2.4. EGITURA ERREPIKAKORRAK.

1. Teklatu bidez irakurritako zenbakiaren faktoriala kalkulatu duen programa idatzi:
2. Teklatu bidez sartu diren noten media aritmetikoa kalkulatu nahi da programa baten bidez. Programa interaktiboa izango da eta honelako itxura azalduko luke:

Egikaritzapena:

Zenbat nota sartuko dituzu? 7

1 nota: 7.50

2 nota: 6.40

3 nota: 4.35

...

7 nota: 9.75

Aurreko noten media aritmetikoa: 6.80

3. Zero zenbakiaz amaitzen den osoko zenbakizko sekuentzia bat emanda kalkula ezazu sekuentziako zenbakien batez besteko aritmetikoa (zeroa kontatu gabe).
4. Teklatu bidez emaniko zenbakizko segida bateko baliorik handiena, txikiena eta N zenbaki horien media kalkulatu duen algoritmoa idatzi eta ondoren soluzioa Qbez eman. N kopurua, programaren hasieran eskatuko da eta zenbakiak erabiltzaileak sakatuko ditu.
5. Osoko zenbaki positibo bat irakurri eta bere zatitzaile guztiak idatzi.
6. Puntu karaktereaz amaitzen den karaktere-sekuentzia bat emanda 'A' letra zenbat aldiz agertzen den kontatu ezazu.
7. Puntu karaktereaz amaitzen den karaktere-sekuentzia bat emanda karaktere guzti horien artean zenbat bokal agertzen diren kontatu ezazu.
8. Puntu karaktereaz amaitzen den karaktere-sekuentzia bat emanda karaktere guzti horien artean zenbat bokal, zenbat karaktere bokal ez direnak eta denetara zenbat karaktere agertzen diren kontatu ezazu.
9. Zero zenbakiaz amaitzen den osoko zenbakizko sekuentzia batean zenbaki maximoa bilatzeko programa idatzi.
10. Puntu karaktereaz amaitzen den karaktere-sekuentzia batean kontatu zenbat aldiz agertzen den 'A' karakterea 'T' karaktere baten atzetik.
11. N osoko zenbaki bat emanda, ea zenbaki lehena den aztertuko duen programa idatzi.